

Axular Lizeoa, Elgoibar Ikastola, San Benito Ikastola, Urola BHI eta La Salle Berrozpe, Kosmodisea Grapho lehiaketan puntu gehien lortu duten ikastetxeak

Axular Lizeoa, Elgoibar Ikastola, San Benito Ikastola, Urola BHI eta La Salle Berrozpe ikastetxeetako taldeek lortu dute puntu gehien **Kosmodisea** 2011-2012 Grapho Planetan. Kontuan izan behar da fase hau Kosmodiseako edizio honetako berrikuntza dela eta, bertan, talde parte-hartzaileek beren proiektuak planifikatu, garatu eta gauzatu dituzte "wikia" erabiliz.



Axular Lizeoa

Isabel Aldasorori elkarrizketa. Axular Lizeoa
 Itziar Ulazari elkarrizketa. Elgoibar Ikastola
 Aitor Madrazori elkarrizketa. San Benito Ikastola
 Rocío del Castillo Etxebarriari elkarrizketa. Urola BHI
 M^a Cristina Aldasorori elkarrizketa. La Salle Berrozpe

Kosmodisea **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa-garapena eta Turismo Departamentuaren** ekimena da eta finantzazioaren % 50 **Europako Gizarte Funtsak** emana da ("Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du"). Ekimenak Gipuzkoan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-alorreko ekintzailtza sustatu nahi du, talde-lanaren bitartez eta IKTen (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien) erabilera trinko eta aurreratuaren bitartez.



Elgoibar Ikastola

Aurreko fasean gertatu zen moduan, Axular Lizeoko ordezkariak izan dira (**ikus** **elkarrizketa**) Lehen Hezkuntza 1 kategorian puntu gehien lortu dutenak (1, 2 eta 3. mailak). Bestalde, Elgoibar Ikastolaren lana izan da (**ikus** **elkarrizketa**) Lehen Hezkuntza 2 kategorian (4, 5 eta 6. maila) puntu gehien lortu dituen eta San Benito Ikastolak irabazi du DBH kategorian (**ikus** **elkarrizketa**). Adin gehiagoko ikasleen artean, Urola BHIk (**ikus** **elkarrizketa**) lortu du Batxilergo kategoriako saria eta Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxea (**ikus** **elkarrizketa**) izan da Zikloak kategoriako lehen postua lortu duena.



San Benito Ikastola

"Ideia-jasari" zegokion fasearen amaieran erabaki zen moduan, Kosmodisea 2011-2012 lehiaketako lanak planetak bizi duen ingurumen narriadurari buruz, dirurik gabeko mundu bat irudikatzeko aukerari



Urola BHI

buruz edo berrerabilitako materialez egindako eskulturez beteriko museo ekologikoa irudikatzeko aukerari buruz hausnartzera begirakoak izan daitezke. Landu daitekeen beste gai bat bere kasa kargatzeko gai den ordenagailuko sagua diseinatzea litzateke.

"Grapho Planeta" fasearen ondoren dator "Mito" fasea. Maila honen helburu nagusia proiektua bideo baten bidez sustatu eta hedatzea da.

Kosmodisea 2011-2012 edizioan parte hartzeko izena emateko epea seigarren edizioaren bukaerara arte egongo da zabalik.

Web Kosmodisea

www.kosmodisea.net

info@kosmodisea.net

Tfno.: 900 840 842



La Salle Berrozpe